

# Philippe Blanchet

## “Arazoa ez da linguistikoa, soziala eta politikoa baizik”

Marseille, 1961. Soziolinguista irakaslea. *Gltofobia* hitzaren sortzailea da. Rennes-2 Unibertsitateko irakaslea eta *Discriminations: combattre la glottophobie* saioaren egilea. Hendaian emandako hitzaldian, frantses hizkuntza zuzen eta azentu egokiz mintzo ez diren hiztunenganako diskriminazioa eta mespretxua salatu du irmoki: “Gltofobiak gure ikuspegia lausotzen du, baita kultura trakestu ere”. Frantziako Errepublikako hizkuntzaz jardun du bereziki, baina ez soilik.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: ELSA SPIZZICHINO

Philippe Blanchet soziolinguista da. Poliglota. Proventzako (Okzitania) familia bateko semea, proventzala eta frantsesa ditu eguneroko hizkuntzak. Kontent dago *gltofobia* eleak jaso duen arreta dela eta.

Hizkuntzaren eta jendearen arteko harremanaz mintzatu zaigu. Sistema sozialek hizkuntzetan duten eraginaz, euren arteko indar korrelazioaz eta instituzioen eta elkarte sozialen jarreraz: “Ez dago jendarte elebakarra, heterogeneoa da, eta nagusi den hizkuntza –frantsesa kasurako– ez da modu berean mintzatzen. Konfrontazio linguistikoa bizia da, jendartea osatzen duten pertsonen arteko berezitasunen adierazlea, pertsonak ezberdinak garelako, era diferentean mintzo garelako, beste gisa batez bizi garelako”.

Hizkuntza praktika sozial gisara aztertu du Blanchet, eta hiztunoi halaxe begiratzeko gomendioa eman ere, hots, jendeok partekatzen dugun fenomeno sozial gisara. Hona lehen konstatazioa: “Hizkuntzaren praktika ez dago legeak babestua, ezta euren aniztasuna ere. Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten

duten lurraldeetan agerikoa da diskriminazioa”. Bera elebitasunean bizi da. Familian proventzeraz hitz egiten dute: “Nire amatxi justiziak punitua izan zen probentzala mintzatzeagatik!”. Gltofobia konbatitu behar dugula erran digu ozenki. Frantzian ez direla herritarren eskubideak zaintzen ez errespetatzen, eta horrek arazo etiko izugarriak sorraziti dituela: “Herritarren engaiamendua ezinbestekoa da, gizarteak inplikatu behar du arazo honen aitzinean”.

### Eremu-ikerketak

Frantziako lurralde askotariko alor sozialen, instituzioen eta hautetsien jarduerari segimendua egin die, baita Twitter bidez zabalduko hamaika txio aztertu ere. Eremu-ikerketek “ilea lazteko gisako jarrera gltofobikoak” agertu dituzte. Bi konstatazio: arazoa estrukturala da, eta jarrera gltofobikoak norberarenak dira. Hona, hamaika “perla”-ren artean “bitxikeria” zenbait:

Rennesko Hizkuntz Akademiako presidenteari idatzi dio bretoieraz. Erantzuna: “Errepublikan ezin da frantsesez ez den



beste hizkuntza batean idatzi”. Legearen aginduz harago, joera sarkastikoak ere aipatu zituen Blanchet, hala nola, Christiane Taubira ministro sozialista ohia: “Inkesta bat agindu zuen Taubira, ea frantses populazioak berresten ote duen lantokian bi lagunek ‘erregio-ko’ hizkuntzan hitz egitea. Afrusa da eta harrigarria, herritarren hizkuntz eskubideak justiziak babestuta daudelako Europan. Justizia ministroak, demagun, beltzek edo elbarriek lan egin dezaketen galdetuko al luke? Ikaragarria da”. Proventzako irakaslearen iritziz, “hizkuntzen eskubideei buruz pentsatzen eta erreakzionatzen ikasi behar dugu”.

Ignorantziak ez du mugarik, ezta “jakintsu”-arenak ere. Michel Onfray filosofoaren txioak haxe zioen: “Korsikeraz edo bretoieraz nola esango dute telefono edo ordenagailu hitza?”. Telefono hitza grekoa da. Frantsesez hartaz, esan ere ezin: “Maila horretako pertsona batek errana da. Zuek euskaraz ezin dituzue beraz hitz horiek erabili, ez omen dituzue eta. *Non comment!*”.

Hezkunde Nazionaleko ministro ohi Claude ALEGRE-ren txioa ere durduza-